# Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 905
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

ALKATETZA
alkatetza@pasaia.net



Martxoaren 8a urtero Pasaiako Udalaren egutegian gorriz markaturiko data da. Funtsezko hitzordua, urtean zehar egiten den lana bildu, erronkak kalera atera eta gizarte berdinzaleago baten aldeko aldarriak ikusarazteko.

El 8 de marzo es cada año una fecha marcada en rojo en el calendario del Ayuntamiento de Pasaia. Una cita clave para recopilar el trabajo que se realiza a lo largo del año, sacar los retos a la calle y visibilizar las reivindicaciones para una sociedad más igualitaria.

Efemeride honetan, lortutako aurrerapenak aintzatestearekin bat, oraindik egiteko dugun bideaz jabetzea ere funtsezkoa da. Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioa ardatz, bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko unea da. Eta horretarako apustua egingo dugu Pasaiako Udaletik.

En esta efeméride, junto al reconocimiento de los avances conseguidos, también es fundamental ser conscientes del camino que aún nos queda por recorrer. Desde hace tiempo hay voces que dicen que estamos inmersas en una crisis de cuidados y, desde el Ayuntamieto de Pasaia seguiremos apostando por un Sistema Público y Comunitario de Cuidados, para mantener la vida en condiciones dignas y justas.

Bistakoa da herritar guztien bizitzek ez dutela berdin balio gure herrietan, eta emakumeen gain geratzen dela zaintzen lan karga gehiena. Are, historian zehar sistematikoki ezkutatu izan dira hainbat jatorri eta tradizio kulturaletako emakumeen ekarpenak: emakume arrazializatuak, lesbianak, transak, bisexualak, dibertsitate funtzionala dutenak, pobreak, gizarte-bazterkeriako egoerak bizi dituztenak, bizi-proiektua gurea bezalako herrietan garatzen dutenak, landa-ingurunekoak...

Es evidente que las vidas de toda la ciudadanía no valen igual en nuestros pueblos y que sobre las mujeres cae la mayor parte de la carga de trabajo de los cuidados. Incluso, a lo largo de la historia se han ocultado sistemáticamente las aportaciones de mujeres de diferentes orígenes y tradiciones culturales: mujeres racializadas, lesbianas, trans, bisexuales, con diversidad funcional, pobres, que viven situaciones de exclusión social, que desarrollan su proyecto de vida en pueblos como el nuestro, o del medio rural…

Aldaketaren aldeko aktibismoa belaunaldiz belaunaldi gauzatzen da. Horregatik, hain zuzen, aurten bereziki adineko emakumeen bizitzetan jarri nahi du arreta Pasaiako Udalak. Belaunaldi hori sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua izan da, eta gizartean hutsaren hurrengo bihurtua. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, desio ez den bakardadea, osasun arazoak, zaintza premiak eta indarkeria matxista mota jakin batzuk.

El activismo por el cambio se ejerce de generación en generación. Precisamente por ello, este año, el Ayuntamiento de Pasaia quiere centrarse especialmente en las vidas de las mujeres mayores. Una generación que ha sido sistemáticamente estereotipada y discriminada, volviéndola socialmente irrelevante. Además, esta invisibilidad está ocultando situaciones de mayor debilidad, como precariedad y empobrecimiento, la soledad no deseada, los problemas de salud, las necesidades de cuidados y tipos específicos de violencia machista.

Adineko emakumeen askotariko errealitateen gaineko ikuspegi kritikoa lantzea lagungarria da, memoria historikoan zor zaien erreparazioranzko bidea egiteko. Ildo horretan, Martxoaren 8 honetan Pasaiako Udalak honako konpromisoak hartuko ditu:

1. Emakumeek historian zehar eta ezagutza-arlo guztietan egindako

Impulsar una visión crítica de las diversas realidades de las mujeres mayores contribuye a la reparación que se les debe en la memoria histórica. En este sentido, Ayuntamiento de Pasaia se compromete a:

1. Continuar impulsando proyectos que visibilicen, recuerden y celebren las

ekarpenak ikusarazten, gogoratzen eta ospatzen dituzten proiektuan bultzatzen jarraitzea, Pasaiako Jabekuntza Eskolaren eta berdintasunerako udal-politiken bidez.

2. Berdintasun Mahaia bultzatzea eta indartzea eta honekin elkarlana areagotzea. Horrez gain mahai honen belaunaldien arteko izaera sustatzea eta Pasaiako Mugimendu Feminista aintzatestea emakumeen ahalduntzerako egindako lanagatik.

3. Pasaiako kale izendegian aldaketak egitea, tokiko genealogia berreskuratzeko eta Pasaiako historian erreferente izan diren emakumeek dagozkien lekuak har ditzaten.

4. Berdintasun planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.

5. Pasaiako gizarteko eragileak eta geruzak prestatzen eta sentsibilizatzen jarraitzea, beren errealitate eta beharrei erantzun egokiak emango dizkieten programak eta protokoloak artikulatzeko, indarkeria matxistei, desio ez den bakardadeari edo adineko emakumeen beharrei eta zaintzari dagokienez.

6. Jatorri eta errealitate sozioekonomiko askotako emakumeen arteko topaguneak eta elkarrizketa bultzatzen jarraitzea, askotariko emakumeen ahalduntzerako eta aliantzarako gune gisa.

7. Emakumeen aniztasunaren ikusgarritasuna sustatzea, besteak beste, lesbiana, bisexual eta transen bizitzak aztertu, ikusarazi eta ezagutzeko bide bat hasiz, baita adineko emakumeenak ere.

8. Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eragina eta hura gauzatzeko moduak ikertzea eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara

aportaciones de las mujeres a lo largo de la historia y en las diferentes áreas de conocimiento a través de la Escuela de Empoderamiento de Pasaia y las políticas municipales de igualdad.

2. Impulsar y reforzar la Mesa de Igualdad e intensificar la colaboración con la misma. Además, fomentar el carácter intergeneracional de esta mesa y reconocer al Movimiento Feminista de Pasaia por su labor de empoderamiento de las mujeres.

3. Realizar cambios en el callejero de Pasaia para recuperar la genealogía local y que las mujeres referentes en la historia de Pasaia ocupen los lugares que les corresponden.

4. Trabajar en torno al modelo de gobernanza y seguir estableciendo cauces para promover el empoderamiento de las mujeres a través de los Planes de Igualdad.

5. Seguir formando y sensibilizando a los diferentes agentes y capas de la sociedad pasaitarra para articular programas y protocolos que den respuestas adecuadas a sus realidades y necesidades en relación con las violencias machistas, la soledad no deseada o las necesidades y cuidados de las mujeres mayores.

6. Seguir impulsando espacios de encuentro y diálogo entre mujeres de diferentes orígenes y realidades socioeconómicas, como espacios de empoderamiento y alianza de mujeres múltiples.

7. Promover la visibilidad de la diversidad de las mujeres, iniciando una vía de análisis, visibilización y conocimiento de las vidas de lesbianas, bisexuales y trans, entre otras, así como de las mujeres mayores.

8. Investigar y profundizar en la incidencia y formas en las que se ejerce la violencia machista contra las mujeres mayores, a fin de articular respuestas adecuadas a su realidad y

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 905
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
ALKATETZA
alkatetza@pasaia.net


egokitutako erantzunak artikulatzeko.

9. Pasaiako laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak erdigunera eramatea, eta zaintza arloko langileei gizarte- eta lan-duintasuna ematea. Zerbitzu horiei esker, emakume askok bizi-proiektuak garatzen dituzte, eta adineko emakume askok autonomia izaten jarraitzen dute.

10. Adineko emakumeei eskubidea duten laguntza eta prestazio ekonomikoak eskuratzen laguntzea, eta erakunde eskudunen aurrean bitartekaritza eskaintzea, batez ere errenta txikienak dituztenei. Horrela, besteak beste, ahalduntze ekonomikoa bermatuko dieten diru-sarreren eta pentsioen eskariak edo konpentsazio-neurriak artikulatu daitezen.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, Pasaiako Udalak aldarrikatu nahi du, aurrera egin den arren, oraindik lortu gabeko gaiak daudela eta horien alde lanean jarraitu behar dela. Hona hemen horietako batzuk: soldata-berdintasuna, lanbide-karreretan hazteko kalterik gabe kontziliaziorako eskubidea, amatasunagatiko lan-diskriminazioa, genero-arriskurik gabeko gurasotasun arduratsua, jazarpenaren eta tratu txar fisiko zein psikikoen aurkako berme eta segurtasun juridikoa gizarte-maila guztietan, eta emakumeek sistematikoki jasaten dituzten desberdintasun guztiak.

Amaitzeko, Udal honek herritarrei dei egiten die, Emakumeen Nazioarteko Egunaren karietara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

**Izan zirelako gara.**
**Garelako, izango dira.**

necesidades.

9. Llevar al centro los servicios públicos de asistencia y cuidados de Pasaia, dignificando social y laboralmente al personal de cuidados. Gracias a estos servicios, muchas mujeres desarrollan proyectos vitales y muchas mujeres mayores siguen teniendo autonomía.

10. Facilitar a las mujeres mayores el acceso a las ayudas y prestaciones económicas a las que tienen derecho, y ofrecerles una mediación ante las instituciones competentes, especialmente a las que tienen rentas más bajas. Para lograr así, entre otros, que se articulen las demandas de ingresos y pensiones o medidas compensatorias que les garanticen el empoderamiento económico.

Por último, pero no por ello menos importante, el Ayuntamiento de Pasaia quiere reivindicar que pese haber avanzado, todavía hay cuestiones que no están logradas y por las que hay que seguir trabajando. Algunas de ellas son: la igualdad salarial, el derecho a la conciliación sin menoscabo de crecer en las carreras profesionales, la discriminación laboral por la maternidad, la parentalidad responsable sin riesgo de género, la garantía y seguridad jurídica frente al acoso y maltrato tanto físico como psíquico en todos los planos sociales y todas aquellas desigualdades que las mujeres siguen sufriendo de manera sistemática.

Por último, este Ayuntamiento hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones organizadas por el Movimiento Feminista para el 8 de marzo. con motivo del Día Internacional de las Mujeres.

**Por las que fueron, somos.**
**Por las que somos, serán.**

Pasaian, 2024ko martxoaren 8an